

MIÑE LAMIÑE 2016

EUSKARA ERABILTZeko ARRazoI BERRIAK

Aurten ere, Euskararen Egunaren atarian, Miñe Lamiñe ekitaldia egin dugu azaroaren 26an, Bermeoko Kafe Antzokian. Oraingo honetan, gainera, eta iaz urratutako bideari jarraituz, herrian martxan dagoen Geuk Eus kanpainaren barruan egin dugu.

Euskara Sailaren deiari erantzunez, hogeit bat lagun batu ginen euskararen bueltan. Geuk Eus kanpainan grabatutako bideoak aintzat hartuta, euskara erabiltzeko herritarrok ditugun arrazoiak aztertu, eta gure diskurtsoa berritzen saiatu ginen. Ez zen lan makala, ez, eta, hala ere, ideia berriak aterata ziren, kezka zahar eta berriak, etorkizunerako proposamenak...

Hiru erronka jarri genituen:

- 1) Herritarren arrazoiak identifikatzea eta aztertzea
- 2) Diskurtso berrirako ideiak proposatzea
- 3) Diskurtso berria herrira zabaltzeko bideak bilatzea

1-Herritarren arrazoiak identifikatzea eta aztertzea

Geuk Eus kanpainaren barruan, herritarrek euskaraz bizitzeko dituzten arrazoiak jasotzen dituzten bideoak grabatzen ari gara. Arrazoi horien artean, badira batzuk asko errepikatzen direnak, badira askotan entzun eta esan ditugunak, badira kanpotik begiratzen gaituztenek esandakoak, badira umeei bakarrik esaten dizkiegunak... asko dira!

Miñe Lamiñen, euskararen alde herritarrok ahotan darabilgun diskurtsoa identifikatu, eta denon artean aztertu nahi izan genuen. Zer ideia dira erakargarriak? Zein dira erabilgarriak? Zer ideia ez dira hain erakargarriak? Zergatik? Jarraian, identifikatutako diskurtsoak eta horien gaineko gogoeta batzuk jaso ditugu, labur-labur:

- *Nagusiek betidanik egin dute euskaraz; gazteek gutxiago egin dute, erdaraz gehiago egiten dute.*
- *Euskaraz berba egiten dutenek zoriontsuak ematen dute. Harrotasuna.*
- *Euskararen garrantzia eta balioa lana bilatzeko eta bizitzarako. Hizkuntzen aberastasuna.*
- *Harrotasuna: norbere ezaugarrien eta norbere identitatearen erakusle.*
- *Plus bat da lanerako.*
- *Euskal Herrikoa izateak esan nahi du hizkuntza jagon behar dugula, ez galtzeko.*
- *Hizkuntza polita da, erakargarria; ez da zaila, askok esaten duten moduan.*
- *Egin beharra, ez galtzeko: militantzia dago hor atzean.*
- *Sentimenduak adierazteko balio digu.*



- *Lagunekin ez; etxean eta lanean bai.*
- *Gazte batzuek euskaraz egiten dute beti.*
- *Euskaldun berriak gustura sentitzen dira euskara ikasita, eta herriko edozein arlotan integratzeko balio die.*
- *Txikitatik erakutsi diguten hizkuntza da.*
- *Pertsona oso sentitzeko falta zaigun zeozer da.*
- *Ingurunearen zati bat da.*
- *Dibertsitatea, aniztasuna.*
- *Ekosistemaren parte da.*
- *Hizkuntzak jakitea plus bat da lan-inguruan.*
- *Guraso-ume katea apurtuta dago.*
- *Hizkuntza da identitaterik onena.*
- *Kontzientzia barneratua, militantzia.*
- *Kuadrillaren presioa gaztelaniaz egiteko.*
- *Intimitaterako ere balio du.*
- *Identitatea: amore ez ematea.*

2-Ideia berriak diskurtso berrirako

Herritarren arrazoiak aztertu ondoren, diskurtsoa berritzeko ideiak bilatzen saiatu ginen. Berbaz luze eta zabal jardun bagenuen ere, hauek dira idatzita geratu zirenak:

- *Egin "behar" dut zentzu bitan har daiteke: inposaketa modura edo beharrezko dudalako. Bigarren zentzu horri indarra eman*
- *Integrazioaren diskurtsoa erabili*
- *Praktikotasuna*
- *Maitasuna, maitasunezko harremanekin lotu*
- *Gure herriak, gure Aberriak, hizkuntza bat dauka, eta euskalduna izateko euskara jakin behar da. Erdara euskara baino errazagoa da, baina hori ez da arrazoi nahikoa gurea baztertzeke. Zer gertatzen da gure kaleetan gero eta erdara gehiago entzuteko?*
- *Gustura sentitzea, gustura egotea; 'zuzenkeria' albo batera utzi*
- *Euskarak eskaintzen duen plus-a agertu eta euskara eskatzea (erabiltzea, ezagutzea...)*
- *Militantziak eraman behar gaitu erabilerara*
- *Beharrezkoa da ez inposatzea*
- *Euskara ez da elementu isolatua, bizitzaren, izaeraren parte bat da, inguruarekin batera doa: hizkuntza osotasunaren adierazlea da*
- *Kontzientzia hartu behar dugu*
- *Eredu izan behar dugu.*



3-Zelan zabaldu diskurtso berria herrira? Nora jo? Norengana?

Azken erronkari ekin aurretik, Euskara Sailak enpresetan egindako ekimen baten berri izan genuen. Izan ere, aurten esku-hartze emankor bat egin da Salica kontserba-enpresako bulego bateko langileekin.

Hiru saiotan, hizkuntza-ohitura aldatu eta langileek haien artean eta lanetik kanpo euskara gehiago erabiltzea lortu dute. Nola? Euskararekin izandako bizipenak aztertu ostean, euskara gehiago erabiltzeko konpromisoak hartu genituen, eta lorpenak aztertu eta aurrera begira egin beharrekoak finkatu genituen.

Langile bakoitzak abiapuntu desberdina izanda ere, batzuk euskarazko ohiturakaz, beste batzuk ez, aldaketak nabarmenak izan dira, eta esan daiteke “armairutik” irteteko balio izan diela esperientziak: batzuk ohartu dira euskara bere-berea dutela, haien izaeraren parte garrantzitsua dela, eta berreskuratu egin nahi dutela. Beste batzuek, ostera, euskaraz berba egiteko askatasuna eta legitimitatea lortu dute. Maila batean edo bestean, denek egin dute hizkuntza batetik besterako aldaketa. Bai, egia da, dena ez da arrosa-kolorekoa, eta tarteka gaztelaniaz ere egiten dute, baina lehen baino gehiago erabiltzen dute euskara, eta lehen baino gusturago sentitzen dira haien buruekin eta lankideekin.

Salicako esperientziaren berri izan eta gero, horrelako esku-hartzeak eta aurreko ariketan guztion artean botatako ideiak herrira zelan zabaldu aztertzen aritu ginen. Nondik hasi? Nora jo? Norengana? Hauek dira idatziz jaso genituenak:

- *Euskarekiko konpromisoa.*
- *Era naturalean erabili.*
- *Bermeo leku aproposa da euskara ikasteko eta egiteko.*
- *Lehenengo berbak euskaraz beti.*
- *Gazteek euskara gehiago erabiltzeko: sariak eman.*
- *Teknologia berriak erabili, sare sozialak, produktuak erosterakoan eskatu euskaraz izan daitezela.*
- *Aisialdia_: elkarteak, taldeak, entrenatzaileak, begiraleak...*
- *Hezkuntza*
- *Merkataritza: lehenengo berba euskaraz/txartelak*
- *Ostalaritza: tabernetan giroa euskaldunagoa izatea, musika, etab.*
- *Kuadrillategi ekimenak herriko koadriletan.*
- *Praktikotasuna: udal-langileek dena euskaraz.*
- *Integrazioa: etorkinak.*
- *Familiak: afektibotasuna eta maitasuna.*
- *Nortasunaren eta identitatearen diskurtsoa, noiz arte? Gastatuta dago? Eraginkorra da?*

- *Gazteen gunetan: kiroldegietan, patioetan...*
- *Zaharren egoitzetan*
- *Enpresetan*
- *Banketxeetan*
- *Ikastetxeetan*
- *Udaletxean*
- *Anbulatorioan*
- *Dendetan*
- *Eskolak*
- *Gazteak*
- *Kirol-taldeak*
- *Familiak (bikoteak ere bai)*
- *Gurasoak: eredu izan behar dute*
- *Eskaera herritarrengandik atera behar da. Herritarrek esan behar dute zer nahi duten, Udalak horretarako baliabideak ipini behar ditu, eta herritarrek baliabide horiekin bat egin behar dute. Baina herritarrek beharrik sentitzen ez badute, edo Udalari eskaerarik egiten ez badiote, alferrik da Udalak ekintzak egiten jarraitzea.*

Ekitaldiaren balorazioa

Aurtengo ekitaldiari buruzko iritzia emateko, agertokira igo ginen, eta termometro bat irudikatu genuen. Mutur batean globoak jarri genituen, 10 zenbakia irudikatzeko, eta beste muturrean 0 zenbakia zegoela pentsatu behar genuen.

Hainbat galderari erantzunez, globoen aldera edo beste muturrera joan behar izan genuen.

Zer iruditu zaizue gaurko gaia?



Zer iruditu zaizue gaia lantzeko modua?



Zer iruditu zaizue lortutako emaitza?





Zer iruditu zaizue gaurko giroa?



Etorriko zarete datorren urtean?



Ipuin-kontalaria: tardantzarenak eta beste kontu batzuk

Ekitaldiari amaiera emateko, Ipuin Lapikoko Itziar Rekalde Luzarragak beraren umetako kontuak ekarri zizkigun Kafe Antzokira, batzuk benetakoak eta beste batzuk... asmatutakoak? Egia esan, ez zitzaigun geratu oso argi... ipuin-kontalari trebea delako, dudarik gabe! Besteak beste, kontatu zigun nola jarduten zuten emakumeek sukaldeko txoko batean elkarrekin beharrean eta barriketan, eta nola bidaltzen zituzten umeak libra erdi tardantzaren eske, edo baita kilo eta erdi tardantzaren bila ere, batzuetan... batek daki zertarako, hainbeste! Eskerrik asko, Itziar, ederra izan da!

Eta, agur esateko, talde-argazkia atera genuen.



Eskerrik asko, guztioi!